Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maritxu Mendizabal Mendizabal

Zizurkil, Gipuzkoa (1930)


Maritxu Mendizabal

Aurkibidea

Biografia

Maritxu Mendizabal

Zizurkilgo plazan jaioa, Pantxikene etxean. Gurasoak Zizurkilgoak zituen. Pantxikene herriko gune garrantzitsua zen sasoi batean: taberna, jatetxea, okindegia, denda eta estankoa, denetik zuten han. Aitak ogia egiten zuen, eta ama sukaldean egoten zen. Behiak ere bazituzten; inguruko baserrietako esneak biltzen zituzten, eta Donostiara eraman egunero, saltzeko. Maritxu herriko eskolan ibili zen 14 urtera arte. Esnea partitzen eta tabernan zerbitzen hasi zen gaztetxotatik. Zaldi-karroan joaten zen Villabonako geltokira eta gero trenez Donostiara. Bost senide ziren, hiru neska eta bi mutil. Villabonara ezkondu zen, Oriamendiko etxeetara: Zizurkilgoa zuen senarra, baina SACEMen zebilen lanean. Alaba bat izan zuten.

Zintak

ZIZ-018

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia

- **Data**: 2014-02-11
- **Iraupena**: 83 min
- **Euskarria**: Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com